HEZKUNTZA SAILBURUAREN AGINDUA, HEZKUNTZAREN EBALUAZIO, IKERKETA ETA PROSPEKTIBARAKO EUSKAL INSTITUTUA SORTZEKO DEKRETU BERRIA EGITEARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEKO DENA.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak honako hau xedatzen du:

11. artikulua. Herritarrei aurretiazko kontsulta:

"1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioko langile zein herritarra izan.

2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada."

Hezkuntza Sailak Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Institutua (ISEI-IVEI) arautzeko Dekretua egiten hasteko asmoa du. Haren helburua da Institutuaren araubide juridikoa, eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua egokitzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen V. Tituluko III. kapituluan ezarritako esparrua. Dekretuaren xedeak hauek izan behar dute: Institutuaren eginkizuna indartzea, Euskal Hezkuntza Sistemaren zerbitzura hezkuntza-ebaluaziorako, -ikerketarako eta -prospektibarako erreferentziazko organo tekniko gisa; haren antolaketa-egitura eguneratzea; eta bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar dituen giza baliabideak ematea.

6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak, xedatutakoarekin bat etorriz, eta arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

errazteko, arau-proiektua egin aurretik kontsulta publikoko aldi bat irekitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, herritarren iritzia jaso ahal izateko, bai eta etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen erakunde adierazgarrienena ere.

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak

Arau-ekimen honen xedea da Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Institutuaren arauketa berri bat onartzea, 14/2001 Dekretuan jasotakoa ordezteko. Dekretu hori gaur egungoaren oso bestelakoa zen arau- eta hezkuntza-testuinguru batean onartu zen. Azken hamarkadetan euskal hezkuntza-sistemak izan duen bilakaerak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Lege berria onartu izanak ere, arau-esparru eguneratu bat behar-beharrezko egiten dute, lege horren aginduak betetzeko eta egungo eskakizunetara egokitutako jarduera eraginkor eta koherentea bermatzeko.

2.- Aurreikusitako arauketaren beharra eta gai horri buruz indarrean dagoen araudia

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Lege berriak, bere II. kapituluan, funtsezko garrantzia ematen dio hezkuntza-sistemaren ebaluazioa bultzatzeari, ebaluazioa hezkuntzaren eremu eta jarduera guztietara indartu, zabaldu eta orokortzeko, sistemaren ebaluazio integral baten esparruan, hezkuntza-politiken eraginkortasun- eta efizientzia-maila zentzurik zabalenean etengabe egiaztatzeko bide gisa. Gainera, lege horren III. Kapituluak Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Institutuaren egituraren ildo nagusiak ezartzen ditu, bai eta haren eginkizunak eta ebaluazio- eta prospektiba-jardueran lankidetzarako eremua ere, eta, azkenik, haren jarduera profesionala arautuko duen jokabide-kodea aipatzen du.

Lege horrek ikuspegi berritua ezartzen du kalitateari, ekitateari, ebaluazioari, berrikuntzari eta etengabeko hobekuntzari dagokionez, eta garrantzi estrategikoa ematen dio hezkuntza-erabakiak hartzeko informazio zorrotza eta egiaztatua eskura izateari, kalitatezko eta bikaintasunezko hezkuntzaren oinarri gisa. Testuinguru horretan, ISEI-IVEIren eginkizunak indartu eta eguneratu behar dira, euskal hezkuntza-sistemaren ebaluaziorako, hezkuntza-ikerketarako eta hezkuntza-prospekziorako erreferentziazko institutua den aldetik.

Euskal hezkuntza-sistemak dituen erronka garrantzitsuenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: aniztasunari erantzutea, desberdintasunak murriztea, digitalizazioa, curriculuma eguneratzea, eta ikasleen emaitzak eta ongizatea hobetzeko beharra. Hezkuntza-sistemaren erronka horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da egungo egoerara egokitutako ebaluazioak eta ikerketak izatea, bai eta joera berriak hautemateko eta euskal hezkuntza-sistemaren plangintza estrategikoa bideratzeko gai diren prospekzio-prozesuak izatea ere.

ISEI-IVEI lege-esparru berrira eta hezkuntza-sistemaren egungo eskaeretara egokitzen dela bermatzeko, dekretu berri bat onartu behar da, 14/2001 Dekretua ordeztu, Institutuaren eginkizunak eguneratu, haren antolamendu-egitura egokitu eta haren gaitasun tekniko eta estrategikoa indartuko duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Lege berrian ezarritako jarraibideekin bat etorriz, eta jarduera publikoko eraginkortasun-, efizientzia-, kalitate- eta gardentasun-printzipioekin koherentzian.

3.- Dekretu berriaren helburuak hauek dira:

1- ISEI-IVEIren araudia Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Lege berrian aurreikusitako esparrura egokitzea, Institutuari esleitutako eginkizunen arteko koherentzia bermatuz.

2- "Ebaluazio-esparru propioa garatzea, hezkuntza-sistemaren bikaintasunerako eta etengabeko hobekuntzarako tresna gisa, ebaluazioa maila hauetan jarriko duena: ikasleen konpetentzien araberako ebaluazio-eredu integral bat, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan hobekuntzak sustatzera bideratua; ikastetxeen ebaluazioa, sistema autonomoago, efizienteago eta efikazago batean aurrera egiteko; zuzendaritza-eginkizunaren eta irakaskuntza-eginkizunaren ebaluazioa, bai, halaber, laguntzako, administrazioko eta zerbitzuetako langileen ebaluazioa ere, haien lanbide-jarduna eta ikasleen gaitasunen garapena hobetzeko (Legea, 16. or.).

3- Institutuaren ebaluazio-eginkizuna indartzea, aldian-aldian ebaluazio zorrotzak egiten direla bermatuz – bai propioak, bai estatukoak eta nazioartekoak -, hezkuntza-sistema, politika publikoak eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzera bideratuak.

4- Hezkuntza-ikerketa bultzatzea euskal hezkuntza-sistemako unibertsitateekin eta ikerketa-arloan itzal handiko beste zentro edo eragileekin lankidetzan, ISEI-IVEIren funtsezko eginkizun gisa, hezkuntza-errealitatea ulertzeko, erabaki estrategikoak oinarritzeko eta ebidentzian oinarritutako berrikuntza sustatzeko ezagutza sortze aldera.

5- Hezkuntza-prospekzioa Institutuaren ildo estrategiko gisa formalki txertatzea, joerak aurreikusteko, etorkizuneko agertokiak aztertzeko eta erakunde- eta ikastetxe-mailako hezkuntza-plangintzari laguntzeko tresnak emanez.

6- ISEI-IVEIren antolamendu- eta funtzionamendu-egitura eguneratzea, bere eginkizunak betetzeko eraginkortasuna, autonomia teknikoa eta jarduteko gaitasuna bermatze aldera.

7- Unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin, hezkuntza-administrazioekin eta estutuko zein nazioarteko erakundeekin lankidetza indartzea, metodologia hobetzea eta egindako azterlanen konparagarritasuna sustatuz.

Horrela, dekretu berri baten izapidetzeari ekitea erabaki da, sortze-proposamen hau baita Institutua Euskal Hezkuntza Sistemara egokitzen dela bermatzeko biderik onena. Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko arauketa horrek eragin diezaiekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekita dago, bai eta bestelako erakunde, entitate edo elkarte guztiei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko Iragarki-taulan, Legegunean eta Irekian argitaratuko da.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, eragindako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Beraz, kontsulta publikoko izapide hori da une honetan egiten ari dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Gainera, dekretua egin aurretik egiten da, 6/2022 Legearen, ekainaren 30ekoaren, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenaren, 11. artikuluak arautzen duen prestaketa-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Kontsulta publikoko izapidera eramatea, egin aurretik, Hezkuntzaren Ebaluazio, Ikerketa eta Prospektibarako Euskal Institutuaren antolaketa, egitura eta eginkizunak arautzeko dekretu-proiektua. Institutu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legean aurreikusita dago.

Bigarrena.- Arauak eragiten dien herritarrek eta entitateek, hala egokitzat jotzen badute, Agindu honetan planteatutako alderdiei buruzkok iritziak helarazi ahal izango dituzte hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Bilbon, sinaduraren datan.